



5 ▶ ASTEAZKENA

12:00etan.- Erregeek haurren gutunak jasoko dituzte. Loinazko San Martin plazan.

18:15ean.- Erregeen zamalkada. Herriko kaleetan zehar.

8 ▶ LARUNBATA

17:00etan.- Haur zinea: "Midas erregearen altxorra". Usurbe Antzokian.

14 ▶ OSTIRALA

22:15ean.- Antzerki Garaia: "Euria esan eta euria erortzea". Usurbe Antzokian.

21 ▶ OSTIRALA

09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Pepper". Usurbe Antzokian.

22 ▶ LARUNBATA

17:00etan.- Haur antzerkia "Aitona Matias". Usurbe Antzokian.

28 ▶ OSTIRALA

22:15ean.- Antzerki amateur: "Cianuro sólo o con leche". Usurbe Antzokian.



27 ▶ ASTEGUNA

21:00etan.- "Gau laburreko irabazlea" eta "Abel" filmen proiektzioa. Usurbe Antzokian.

ERAKUSKETA

Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

7tik 16ra ▶

Jazpana! Fest 2010. Argazki Rallya eta gehiago... Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

21etik 30era ▶

Jose Manuel Bereziartuaren artelanak. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.



Jose Inazio Aranburu

Garinen gogotsu, San Sebastian jaietarako

Urtarrilaren 22an eta 23an ospatuko dituzte Garin auzoan San Sebastian jaiak. Aurten ere, eguraldiak laguntzen badu, asteburu polita izango da, egitarau borobila antolatu baitute. Hala dio bertan jaioa den Jose Ignazio Aranburuk: "Ahaleginak egiten ditugu. Larunbateko bazkarian iaz ere 50 edo 60 lagun elkartu ginen eta ez da gutxi. Beti egin nahi izaten da zerbait zeren nik San Sebastian jaiak betidanik ezagutu ditugu". Dozena bat familia bizi dira gaur egun auzoan baina jaietan Beasainen bizi den jendea ere pozik hurbiltzen da bertara.

"Egitaraua iazkoaren berdina izango da", dio Aranburuk. "Zerbait alda daiteke baina larunbatean "kanpai bueltak eta altxafuegoekin hasiko dira jaiak. Gero, herri bazkaria eta mus txapelketa, haur-jolasak eta Josu eta Aiora trikitilariak, giroa alaitzeko. Igandean, berriz, goiz ere sia txistulariekin eta meza nagusia izango dira. Gero, Areantzako kanpaijole Eskolako kideak kanpai-jotze saioa egingo dute. Eguerdian, idi probak izango dira eta Matxin saskigileak ere erakusketa eskainiko du". Dena prest, beraz, asteburuaz gozatzeko.

L.G. SS-1284-2008

3752-010

Paper birziklatu egina



IGARTZA ONDAREA ERABERRITUZ

4

ANTZERKIA.
Apirilaren erdi aldera bitartean, hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera zabalik da.

6

UDAL AURREKONTUA
%18 igoko dira inbertsioak 2011n, krisiak gerrikoa es-tutzera bultzatzen badu ere.

10

EKINTZAILEAK
Beasaindarrak merkatu berrietan murgilduta dabilta proiektu berritzaileekin.

“Zanpazarrak Beasain” 2008. Xabier Eskisabel.



“CAFeko lokomotora ohia” 2009. Xabier Eskisabel.



Beasain eta beasaindarrak



“Banda de música y txistularis” 2009. Xabier Garmendja.



“Haur dantzariak” 1980. Xabier Eskisabel.

“Dizebiren Graffitieta bat” 2010. Luisa Zurutuza.



“Sari banaketa”- 2009. Xabier Eskisabel.



Puedes colgar tus fotos en www.guregipuzkoa.net
Algunos beasaindarrak ya lo han hecho.
Éstas son algunas de las fotos que han subido.
Animatu zaitetz!



“Montañeros en la cruz de Usurbe” - 1960. Indalecio Ojanguren.



“Azkaitek Pelox Dolarean” - 2010. Xabier Eskisabel.

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Urte berriarekin esperantzak ere atsedean du gurean, zuhurtziz jantzitako esperantza marraztu dugu udaletik aurrekontuetatik hasiz. Sarrerak murriztu eta gastuei nola hala eutsiz ea aurrera-pausoak emateko gai geran 2011.ean. Nahi horien berri emango dizugu Ilbeltz edo Urtarrileko ale honetan.

Igartza multzoko eraikinen zaharberritzea bukatzeaz dagoen honetan Igartza Jauregia birgaitzeko lan eta emaitzek betetzen dituzte aldizkari orri nagusiak. Beasain eta Beasaindarrak izaeran hain garrantzitsua izan den multzo hau berritzearekin herriaren muina ere zaharberritu eta indartu egin da.

Jakintsuen hitzetan Beasain herriak duen ondare hau bakarria omen da gure lurraldean. Udalak bultzatu du berrikuntza eta horretarako laguntzak ere jaso ditu. Foru

Aldundia gertu izan dugu eta dugu, Kutzak ere bere egin du Igartza multzoa.

Argazkiak garbi adierazten dute al-daketa. Erortzeaz zegoen jauregia modu jakin batean zorrotasunez ber-ritu da eta jada herriaren ikurra da.

Azalean lehen pauso garrantzitsua eman bada ere mamiak emango dio bizia. Herriko eta kanpokoek guneaz gozatu ahal iritsiko zaio muinari nortasuna.

Kale nagusia eta bere inguruak txu-kuntzearekin batera trafikoko aldaketa batzuk egin dira. Kotxearen erabilera murriztea lehen helburua izanik bi-tartean erabilera hau hobeto kude-atzea da trafikoko aldaketaren helburua; zarata, eta kutsadura gut-xitu, oinezkoen segurtasuna bermat-zearekin batera. Honen berri aldizkarian duzue.

Besteak beste beasaindarrak gazte ekintzaile batzuen berri ere ematen da. Krisi garai honetan badira hain-bat egitasmo gazteei esker aurrera ateratzen direnak, horietatik dira etor-kizunari argia ipintzen diotenak.

Kulturak ere atsedean hartzen ez due-nez badu bere tartea hilabete hone-tan. Oraingoan Antzerkia dugu nagusi. Herriko taldeak aukera pare-gabea dute bere ikuslegoaren aurrean lana egiteko. Ea guztiok gozatzeko aukera dugun!

Urte berria, esperantza berriak

Con el comienzo del nuevo año se renueva la esperanza aunque las perspectivas socioeconómicas son todavía negativas. El ayuntamiento ha aprobado los presupuestos del nuevo año. Presupuestos restrictivos, con contención del gasto e incrementando las inversiones. En este número de la revista se informa de las actuaciones más significativas para el año 2011. La ruta está marcada y ahora toca gestionar con rapidez y eficiencia lo aprobado.

En este número del a revista se quiere realzar el trabajo realizado estos últimos años para rehabilitar el conjunto monumental de Igartza. En esta ocasión coge relevancia Igartza Jauregia cuya rehabilitación se está finalizando. El recuerdo del antiguo edificio abandonado de fuera y dentro, rodeado de pabellones industriales contrasta con el estado actual. La rehabilitación en sí ha sido todo un reto arquitectónico y de trabajo artesanal pero el valor del patrimonio monumental como único en el territorio es lo que resaltan los especialistas en la materia.

Aunque el Ayuntamiento ha sido el promotor del proyecto y el que ha financiado la mitad del costo, hemos tenido a la Diputación Foral y la Kutxa como acompañantes tanto en el desarrollo del proyecto como en su financiación.

El conjunto monumental de Igartza lo han interiorizado much@s vecin@s como símbolo de Beasain.

Se ha dado un gran paso con la rehabilitación del conjunto pero queda gestionarlo bien para que se convierta en un foco de actividad social y cultural en el municipio.

Con la peatonalización de Kale Nagusia se han acometido cambios en el tráfico de vehículos. Aunque el objetivo es disminuir el uso de vehículos a motor se están dando soluciones para mejorar la fluidez del tráfico para evitar el ruido, la contaminación atmosférica y primar la seguridad de los peatones. De todo ello se da cuenta en la revista.

En estos momentos de crisis es gratificante comprobar que jóvenes beasaindarrak opten por el camino del emprendizaje creando iniciativas empresariales y explorando nuevos mercados. En este número de la revista se personifican algunos jóvenes.

La agenda cultural se llena en este mes de enero con el teatro. Teatro en el que participan grupos aficionados del municipio ante sus vecinos. Es una oportunidad que ofrece el Departamento de cultura a los amantes del teatro.

Goierri Irratia musika eta albisteak (F.M. 107.0)



Idoia Girado

"Nik gustukoen ditudan irratsaioak dira "Egun on Goierri" eta "Like a Rolling Stones", azken hau astean behin uste dut izaten dela eta nik gehientsuenetan internetez entzuten dut. Zergatik dudan gustuko irrati hau? Jendeak normalean entzuten duen edo diskografika batek bultzatutako musika ez dutelako jartzen, baizik eta kalitatezkoa." "Like a Rolling Stones" musika talde ezberdinei buruzko saioa da eta egiten duten aukeraketa ere oso ona da. Denak gustatzen zaizkit, "Sigurros", "Arcade fire", "Muse"... Eta gauza bera esango nuke "Egun on Goierri" saioaz. Oso anitza da, gai asko jorratzen dira eta lehiaketa ere ondo dago, noiz edo noiz irabazi dut, gainera".



David Camarero

"Goierri Irratian bezalako irratsaioak ez dira entzuten egun. Sarri entzuten dut. Gai askoren inguruan hitz egiten da bertan; Egia esan, bertan ematen diren albisteek ez diet kasu handirik egiten, musika da gehien entzuten dudana. Denetarik gustatzen zait: rock zaharra, egungoa... barietate handia ematen da. Irratiaren arduraduna den Mikelek entzuleek bidaltzen duten materiala jarri egiten du eta interaktibitate bat ematen da zentzu horretan. Gazte askok entzuten dute Goierri Irratia eta horrek Beasainen musika afizio handia dagoela erakusten du. Horren adibide dira herrian antolatzen diren kontzertuak; musika jaialdi batetara joatean beti topatzen duzu beasaindarrak bat bertan..."



Aimar Zeberio

"Esnatu orduko Goierri Irratia entzuten dut, iratzargailuak jotzean irratia automatikoki pizten da-eta. Programazioa asko gustatzen zait, lehiaketak ere izaten dira baina ia beti jende berberak deitzen du. Jendea saio horietan parte-hartzera animatuko nuke. Zerbait eskatzekotan... agian arratsaldetan saio berriren bat jartzea ez litzateke gaizki egongo. Adibidez, oso gustuko dut Cimerman saioa. Bertan musika alternatiboa eskaintzen da, talde berri asko ezagutzeko aukera ematen du; halako zerbait sartuko nuke arratsaldero. Kurioso da baina Goierri Irratia lokala izan arren, ospe handiagoa duten irratiak baino askoz gustukoagoa dut. Irratiaren balioa inpartean jartzeko lan ona ari da egiten Goierri Irratia".



Xabi Mujika

"Irratia oso ondo dagoela iruditzen zait. Maiz entzuten dut Goierri Irratia. Nire ustez jendearengana iristeko zerbizu funtzioa oso ongi betetzen du. Esaterako, inguruko gertakizunak eta berriak ematen dira bertan. Programazio guztitik gehien erakartzen nauena bertan eskaintzen den musika da. Zentzu horretan oso ondo dago, musika estilo desberdinak jorratzen dira eta, horrez gain, hainbat talderi buruzko informazio interesgarria ematen da, hots, biografia, abestiei buruzko informazioa... gainera, euskal musika eta nazioartekoa entzun ditzakezu. Irrati plurala da eta hori eskertzekoa da. Beasain mailan asko entzuten dela esango nuke, bati-pat gazteen artean indarra hartzen ari dela iruditzen zait".

Antzerki Garaia iritsi da!

Beasaindarrek berriro ere antzerki lan onenez gozatzeko aukera izango dute Antzerki Garaia zikloari esker. Beasaingo eta Ordiziko Udalek antolatutako ekimen honetan 8 saio izango dira ikusgai. Sarrerak emanaldia egin behar den antzokiaren lehiatilan lortu ahal izango dira eta Beasainen Servikutxa zerbitzuaren bidez ere bai. Gainera, 60 euro balio duen abonamendua ere badago, bi herrietako saioak ikusteko aukera ematen duena. Abonatuak, etorkizunean antolatutako diren antzerki saioen informazioa jasoko dute. Abonamendua Ordizian, Barrena Jauregian eta Herri Antzokiko lehiatilan, eta Beasainen Usurbe Antzokiko Lehiatilan eta Beasaingo Udaleko Kultura Sailean erosi daiteke.

Beasainen eskainiko diren saioak, gertutik:

Urtarrilaren 14an

“Euria esan eta euria erortzea” (Gaitzerdi produkzioak).

22:15ean. Usurbe Antzokia. 10 €.

“Euria esan eta euria erortzea” Joseba Sarrionandia euskal herriko poeta eta filosofoaren ametszeko mundua berreginarazten digun ikuskizuna. Bederatzi interpretatzaile Klown teknikak eta kantuak erabiltzen dituzten Sarriondariaren hainbat pentsaketa islatzeko poetika onirikoak eta ikusmena erabiliz.

Otsailaren 25an

“Errautsak” (Artedrama, La Petit Theatre de Pain).

22:15ean. Usurbe Antzokia. 10 €.

Hodei hil da. Gaztaroko lagunak, urteetan elkarren berri izan gabe egon ondok, Hodeiren hiletarako elkartuko dira. Saminak eta berriz elkartzearen emozioak eraginda, Hodeiren azken agur garai bateko festa basati bihurtuko da. Iraganeko eta egungo egia, gezurak eta kontraesanak azaleratuko dituen gau eroa.

Martxoaren 18an

“100 m²” (Txalo Produkzioak).

20:00etan eta 22:30ean. Usurbe Antzokia. Beasain. 10 €.

El piso que le ofrece a Sara el agente inmobiliario reúne todas las características que desea: bajo precio, amplitud, luz y unas hermosas vistas de la sierra. Tan solo presenta un pequeño “inconveniente”: Lola, la dueña del piso, vivirá en él hasta el día de su (inminente a todas luces) fallecimiento. Entre las dos mujeres, tan distintas y tan parecidas en su soledad, surgirá una amistad plagada de risas, ternura, emoción y complicidad.

Apirilaren 15ean

“No me hagas daño” (Tanttaka).

22:15ean. Usurbe Antzokia. Beasain. 10 €.

Luisa hace mucho que ha perdido las ganas de vivir. Ya no reacciona ante los gritos, las amenazas, los golpes. Está demasiado cansada para escapar, para pedir ayuda, para entender lo que le está pasando. Sin embargo, a veces, imagina que todo puede cambiar.

Beste saioak (Herri Antzokia, Ordizia)

Urtarrilaren 21a “Graffiti Classics”

Otsailaren 11 “Baginaren bakarriketak”

Martxoaren 11 “Demode Quartet”

Apirilaren 8a “May Gorostiaga... Presente!”

ETXEKOAK, INDARREAN

Hijos de Martin y Loinaz Kolektiboa



Antzerki talde hau sortu berria da Beasainen. Kurtso hasieran gazte beasaindar batzuk elkartzu ziren herrian “antzerki kultura” zabaltzeko xedez. “Beasainen antzerkiaren bueltan ezer ez zegoela iruditzen zitzaigun, eta horrek bultzatu gintuen talde hau sortzera”, dio Hijos de Martin y Loinaz kolektiboko kide den Anita Alonsok. “Jada eskaini dugu emanaldiren bat. Villabonako Euskal Antzerkizale egunean hartu genuen parte, bertako kaleak animatzen. Primeran pasatu genuen”. Gabonetarako sorpresatxo bat dute prestatuta, Beasaingo kaleak alaituko dituenak. Anitaren eta, orokorrean, Hijos de Martin y Loinaz Kolektiboaren iritziz funtsezkoa da antzerkira joateako ohitura berreskuratzea, batik bat egungo gazteek eta datozen jenerazioek diziplina artistiko eder eta aitzindari honetaz gozatzen jarraitu ahal izateko.

Urrup antzerki taldea


Rosa Rojo lleva ya 17 años dirigiendo este grupo de teatro. “El colectivo empezó mucho antes. La verdad es que llevamos toda una vida juntos. Gente como Marisol Calvero y Arrate Leunda vieron nacer a Urrup y todavía hoy siguen actuando”. En este colectivo todos tienen cabida. “Hay componentes jóvenes que han actuado por primera vez recientemente, al igual que veteranos que llevan toda la vida haciéndolo. Eso es lo bonito de Urrup; además siempre hay incorporaciones nuevas. Quiero remarcar el inmenso compromiso de todos los integrantes, que no se ciñen solo a actuar; también ayudan y colaboran en todo lo necesario para sacar adelante una obra”. El reconocido y laureado grupo presentará la pieza “El cianuro... ¿sólo o con leche?” el próximo 28 de enero en Usurbe Antzokia a las 22:15h. “Es una parodia sobre el humor negro, una burla, una comedia pero con crímenes... Animo a la gente a que se acerque a verla. Es un buen plan para pasar la tarde”.



Trafiko aldaketak


Kale Nagusia eta J.M. Iturriotz kalea oinezkoentzat jartzeak jarraian zehazten diren hainbat trafiko aldaketa eragin ditu:

Detalle cruce Erauskin Plaza



El tráfico que llega a Erauskin plaza se desvía hacia Oriamendi y Garmendia Otaola kaleak y Nafarroa etorbidea.

Detalle cruce Joan Iturralde




El tramo de calle que va de Erauskin plaza al cruce de Joan Iturralde (café Ibañez), cambia de sentido, siendo ahora de entrada hacia Kale Nagusia (autorizados zona peatonal), Nafarroa etorbidea 1-25 (garajes y carga - descarga) y hacia Oriamendi kalea.



Los autobuses circularán por Trenbide kalea y tendrán dos paradas nuevas. Una entre los números 7 y 9 de Joan Iturralde y la otra en Zaldizurreta kalea.



Detalle cruce Zazpiturrieta



El tramo de carretera de Esteban Lasa kalea que se encuentra entre J.M. Iturriotz kalea y Zazpiturrieta kalea pasará a ser una calle de doble sentido de circulación (salida hacia la rotonda).



2011ko aurrekontuak

Ezkiaga auzoko irisgarritasuna hobetzea, Haurreskolako gelen egokitzapena eta hainbat espaloi berri-tzea dira 2011ko inbertsio nagusiak

- > **Beasaingo Udalak onartu duen datorren urteko aurrekontua 18.235.417 eurokoa da.**
- > **Irizpide nagusia, bizi dugun krisi egoeraren aurrean, zorrotasuna den arren, inbertsioak %18 igoko dira, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak baitira.**
- > **Inbertsioetarako 1.959.009,81 euro bideratuko dira.**

Datorren urteko aurrekontuek bizi dugun egoera sozioekonomikoari erantzuten diote, eta zorrotasuna erabili den irizpide nagusia. Hala ere, kontutan izanik diru sarrera arruntak gastu arruntan gainetik daudela, inbertsioetarako 1.959.009,81 euro bideratuko dira, %18 igoaz partida iazko aurrekontuarekin alderatuz. Inbertsio nagusiak Ezkiaga auzoko irisgarritasuna hobetzea, Seaska Haurreskolako bi gelen egokitzapena eta hainbat espaloi berritzera bideratuko dira. Halaber, Igartzako Errotan Done Jakue Bideko aterpea eraikiko da eta auzoetan azpiegiturak hobetzeko ere partida esanguratsua aurreikusten da.

Aurrekontu bateratua 18.235.417 eurokoa da. Udalaren aurrekontu propioa, berriz, 13.960.815 eurokoa.

Horra zenbaki nagusiak:

- Udalaren aurrekontu propioa: 13.960.815,58 euro.
- Beasain Lantzen, S.A.: 3.707.880 euro.
- Antzizar Udal Kirol Erakundea: 488.908,28 euro.
- Loinatz Musika Eskola: 612.969,33 euro.
- Udal Euskaltegia: 369.107,50 euro.

2011ko zerga egutegia

Datorren urterako finkatutako egutegi fiskala eta ordainketak egin beharreko epeak ondorengoak izango dira:

- ➔ **Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica:**
 - Del 2 de febrero al 31 de marzo.
- ➔ **Recogida de basuras:**
 - Desde el 1 de marzo al 30 de abril.
- ➔ **Impuesto sobre Bienes Inmuebles:**
 - Desde el 15 de mayo al 30 de junio.
- ➔ **Impuesto sobre Actividades Económicas:**
 - Desde el 1 de octubre al 10 de noviembre.
- ➔ **Entrada de vehículos en fincas urbanas:**
 - Desde el 1 de septiembre al 2 de noviembre.
- ➔ **Mercado:**
 - 1^{er} Trimestre: desde el 2 de enero al 2 de marzo.
 - 2^o Trimestre: desde el 31 de marzo al 31 de mayo.
 - 3^o Trimestre: desde el 1 de julio al 31 de agosto.
 - 4^o Trimestre: desde el 1 de septiembre al 2 de noviembre.

- ➔ **Parada y situación de vehículos:**
 - Desde el 1 de septiembre al 2 de noviembre.
- ➔ **Quioscos en la vía pública:**
 - Desde el 1 de octubre al 30 de noviembre.

OBRAS



Abierto el plazo de solicitud para dos viviendas tasadas en Esteban Lasa, 12 bajo.

Plazo de presentación de la solicitud: Del 10-01-2011 al 31-01-2011.

Solicitud del impreso y presentación del mismo:

- 1.- Ayuntamiento de Beasain, Oficina de Atención al Ciudadano de 08:30 a 13:30 horas. El Ayuntamiento permanecerá cerrado los sábados y festivos.
- 2.- En la página Web del Ayuntamiento: www.beasain.net.
- 3.- En las oficinas de Correos, de la manera reglamentariamente establecida.

Régimen de las viviendas de carácter tasado municipal: plena propiedad.

Requisitos para acceder a las citadas viviendas de protección oficial:

- 1.- Estar inscritos en Etxebide en régimen de compra de vivienda tasada con anterioridad al 30 de noviembre de 2010.
- 2.- Estar empadronados en el municipio de Beasain en los dos últimos años de manera ininterrumpida o en los últimos diez años durante el número de días que representen cinco años, tomando como referencia en ambos casos el 1 de diciembre de 2010.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y una vez examinadas las mismas, se elaborará una lista provisional que será expuesta al público al objeto de presentar reclamaciones. Una vez resueltas éstas, la lista será elevada a definitiva y se publicará tanto en la página Web, como en el tablón de edictos del Ayuntamiento.




Argiteriaren aldaketarekin, kontsumoa %76 jaitsi da Nafarroa etorbidean eta Kale Nagusian

Nafarroa hiribidean eta Kale Nagusian argiteria aldatu da, LED sistema erabiltzen duten argiak jarri. Horri esker, bi kale horietan kontsumoa %76,18 jaitsi da. Lehen 23.983 w-ko kontsumoa zegoen tokian, orain 4.920 w kontsumitzen dira, horrek dakarren aurrezte energetikoarekin. Halaber, lehen urtean, 32,90 Tn CO₂ isurtzen baziren, hemendik aurrera 6,75 Tn isuriko dira. Udalak argiteria aldatzeko 98.000 euro inbertitu ditu. 80 puntutan aldatu dira argiak eta martxo aurretik beste 50 puntutan aldatzea aurreikusten da.



Lehen



Orain

Gai direla erakusteko aukera bat



Iñigo García.

Muchas veces lo habían soñado pero no habían tenido oportunidad, y ya son 50 las personas con discapacidad intelectual las que gracias al programa PAUSO BERRIAK, creado por GRUPO GUREAK y ATZEGI en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, han accedido a prácticas laborales en diferentes empresas privadas y organismos públicos.

Horixe da Iñigo García beasaindarraren kasua. 22 urte ditu eta Gureaken duen lanaz gain, Beasaingo udaletxean praktikak egiten ditu goizez. Azaro amaieran hasi zen eta urtebeteko iraupena dute. Helburua da adimen-egaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzen laguntzea, ohiko lan ingurune batean. Halaber, enpresak eta erakundeak sentsibilizatu nahi dira kolektibo horrek lane-rako duen gaitasunaren inguruan, geroz eta gehiago izan daitezen horrelako ekimenetara atxikitzen direnak.

Zer lan egiten duzu Beasaingo Udaletxean?

Liburutegiko liburuak antolatzen ditut. Orain umeen sailekoekin ari naiz, eta posta-trukeaz ere arduratzen naiz.

Gustura zaude lanarekin? Aldatuko zenuke zerbait?

Oso pozik nago. Egia esan, ez dut aspertzeko beharrik izaten. Gero, gainera, arratsaldeetan Gureakeko lantegira joaten naiz.

Bizitza berria Igartza jauregiarentzat

e

En el interior del palacio de Igartza están ultimando los últimos preparativos de cara a su apertura, lo que antes fue un patio lóbrego y descubierto se ha convertido en un espacio con encanto donde gracias a una especial iluminación las grandes vigas de madera parecen cobrar vida.

Han sido cuatro años de obras realizados en dos fases, en la primera se dotó al edificio de una nueva cimentación porque se estaba desplazando hacia el río. Se saneó toda su estructura de madera y se renovó todo el tejado. Todas las actuaciones se ejecutaron sin desmontar los muros, ni el armazón de madera, cada viga y poste tuvieron un tratamiento individualizado, únicamente se sustituyeron aquellas muy afectadas por la humedad. En esta segunda fase se han colocado los suelos de roble, se han pintado las paredes y se han instalado las infraestructuras eléctricas, de saneamiento, de iluminación, la calefacción, etc.

Las obras han sido promovidas por el Ayuntamiento a través de su Comisión de Igartza y han sido ejecutadas por la empresa de restauración Bioetxe bajo la dirección del arquitecto Alberto Zulueta y un equipo formado por técnicos de patrimonio del Ayuntamiento y de la Diputación. El trabajo ha sido posible gracias al apoyo económico del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la Kutxa a través de su Obra Social.

Hace quinientos años se levantó este palacio como residencia privada del señor de Igartza que dominaba a los vecinos del entorno, hoy se ha convertido en una infraestructura con un salón de actos, una sala de exposiciones, salas de reuniones y un patio multiusos, todo ello abierto a las dinámicas sociales y culturales del Goierri. Una nueva vida para el palacio Igartza que proporcionará la imagen del Beasain del siglo XXI.



Josu Jauregi,
Bioetxe eraikuntzak. Zurgina.

Azken lau urte hauetan jauregiko egurrezko egiturak konpondu eta sendotu egin ditu. Dena den bere Igartzaletasuna ez da oraingo kontua duela hamairu urte, bere lan-kideekin batera, izkineko fatxada erortzeko zorian zegoenean altxatu eta apuntalatu egin zuten.

“Dozenaka baserrietan lan egin dugu baina zaharberritzeko lan honetan benetan gozatu dugu garaiko zurgin maisuen trebezia ikusiz eta ikasiz. Zaharberrikuntza honek astiro eta eskuz burutu izan behar dugu, habe eta zutabe bakoitza aztertu eta konpondu dugu, kalitatezko haritzak erabili zituzten eta behar dan urtaroan botatakoak, naturari kaso eginez. Horregatik hainbeste urte iraundu dira eta ez gaur egungo gizartearen egiten den moduan, azkar eta kalitate eskasarekin”.



Manu Izagirre,
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Kultur Ondareko teknikaria.

Bizitza oso bat gure jauregi, baserri eta elizak zainduz bizitza oso bat eman du. Besteak beste Ezkio Itsasoko Igartubeiti baserria edota Agorregiko burdinolan egin du lana. Aspaldian, 1985. urtean, Igartzan egon zen zurezko presa Oria ibaitik atera zutenean eta azken zortzi urte hauetan asteroko jarripen bat eman dio, bai burdinlari, zubia, errota eta orain jauregia.

“No podemos hablar solo del palacio, el conjunto de Igartza supone una revolución urbanística para un municipio como Beasain. Se ha actuado con una visión integral del patrimonio, la ferrería, el molino, los canales, el puente, Dolarea, la presa, incluso se ha recuperado parte del cauce del río. En Gipuzkoa desde los años ochenta no se ha dado una implicación de este calibre por parte de un Ayuntamiento, era una oportunidad histórica y ahora que se ha acabado, me parece casi un milagro cuando recuerdo la fábrica Inder y como estaba toda esta zona”.



Alberto Zulueta,
Arkitektoa.

Zaharberrikuntzaren prozesuan arkitektoaren ardura izan du, hasieran burdinolarekin, geroxeago Dolarean eta orain jauregia. Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea eta baita ere Arkitektura Eskolako Zuzendaria.

La complejidad de esta obra radica en restaurar una estructura de madera de 500 años, dotarla de infraestructuras modernas y hacerla utilizable para la vida social de Beasain. En general los arquitectos no estamos acostumbrados a trabajar con estos materiales, es preciso sensibilidad y un trabajo artesanal con profesionales experimentados. Este palacio es un hito en la historia de la arquitectura del País Vasco, no existe otro palacio con semejante patio de madera y desde el punto de vista de la restauración será un referente para los estudiantes de arquitectura.



Emprendedores

de espíritu y de oficio

¿El emprendedor nace o se hace? Fran Bodego, Alberto Conde Mellado, Jose Mari Sarriegi o Alexander Guerra se reinventan el día a día para estar presentes en los mercados emergentes con productos de alto valor tecnológico. Aunque están inmersos en diferentes iniciativas empresariales, los tres primeros fundaron Ikasplay, dedicado a juegos informáticos. Hoy por hoy, Conde dirige NemSolutions, empresa que ofrece la más puntera tecnología para el mantenimiento de equipos de transporte o energía. Sarriegi es ahora profesor

de la Escuela de Ingeniería Tecnum y Guerra está en China. Sus proyectos estratégicos son sus “niños mimados”, ideas que han sido sueño y acaban comercializándose tarde o temprano, aunque tengan que pasar alguna que otra noche en la oficina delante del ordenador. La suya es la cultura del esfuerzo. Y es que el mundo cada vez es más pequeño, pero también más competitivo.

→ Jose Mari Sarriegi

“El profesor también puede ser innovador en la forma de dar clase, en abrir nuevas vías...”

Ekintzailea beti izan zara...

Ikasle garaian, unibertsitatean lagundu nuen Euskal Kultura Taldea sortzen, geroago Mendi Taldea... Bai, irakasle lanean ere izan daiteke ekintzailea, klaseak emateko moduan, bide berriak irekiz...

Unibertsitatean zer da nagusi, ekintzailea edo esfortzu minimoa legetzat hartua duena?

Talde guztietan beti denetarik egon ohi da. Ez dagoenetik ezin da atera. Egin behar dena da potentziala duenari hori ateratzen lagundu. Baina behar da genetika bat. Nik futbolean ordu asko eman arren, ez naiz sekula ona izango...

Teknologia alorrean, Gipuzkoa non dago?

Konparaketaren arabera. Mundu mailan, ez gaude lehenengo postuan. Europa mailan, tira, hortxe, parekatu samartuta. Estatuarekin alderatuz, hobeto... Ezin dena egin da konformatzea.



→ Fran Bodego eta Alberto Conde Mellado

“Aunque la idea sea muy buena, puede que para cuando se comercialice ya no lo sea”

Zer da ekintzailea izatea?

Fran Bodego: Ekintzailearen kulturak gauzak ikusteko beste modu bat erakusten du. Niri unibertsitatean inoiz ez zidaten esan nire kabuz enpresa bat sortzeko gai izango nintzenik.

Alberto Conde: Duela 20 urte zaila zen enpresa bat muntatzea, baina gaur egun ordenagailu batekin asko egin daiteke.

F. B.: Ideia ona baldin bada...

A. C.: Kontua da ideia hori merkaturatzea, zeren askotan ideia bat garatzen den bitartean denbora asko igarotzen da eta ideia ona zena, beharbada merkatura iristen denerako ez da hain ona.

Zeintzuk dira zailtasun nagusiak merkatu berrietan sartzeko orduan?

A. C.: Gu Indian eta Txinan sartu nahian gabilta NemSolutionseko produktuak, eta konturatu gara han nolabaiteko presentzia behar dela, edo zerbait muntatu edo agente bat hartu. Agenteak ditugu Txinan eta Indian.

F. B.: Ikasplay-ren kasuan, gu geu ibiltzen gara hara eta hona. Edo skype bidez.

Gau-pasaren bat ere egin duzue bulegoan, ala?

F. B.: Bai, bai. Baina lanak ematen digu aukera jende asko eta interesgarria ezagutzeko ere.

A. C.: Gure bizitzetan lana oso garrantzitsua da. Batzuk bizitzeko egiten dute lan, eta beste batzuentzat lana garapen bide bat da. Proiektu hauei esker ni mundua ari naiz ezagutzen, jendea... momentu txarrak era pasatzen ditugu, nola ez, baina pozgarriak ere bai.



→ Alexander Guerra

Trabaja en China de la mano de la empresa Industrias Electromecánicas GH.

"Si quieres negociar con los chinos tienes que involucrarte con su cultura y sus costumbres"

Nolatan zaude Txinan? Zer lan egiten?

Gure enpresak herrialde honetan lan egiteko jende bila zebilela zabaldu zuen eta izena eman nuen. Begira orain munduaren beste puntan nabil lanean. GH-n industriarako eta portueterako garabiak fabrikatu eta saltzen ditugu.

Nola ikusten duzu Txinako merkaturak?

Txinako merkaturak, oso merkatu interesgarria da. Momentu honetan pil-pilean dagoena eta urte askoan erritmo berean jarraitzeko asmoa daukala iruditzen zait gainera.

Zer nolako zailtasunak ditu euskal enpresa batek Txinako merkaturan sartzeko?

Lehendabizikoa eta garrantzitsua da. Ez bakarrik beraien hizkuntza hitz egiten jakitea soilik, bertako kulturaren eta ohituretan murgildu beharrean zaude beraiekin negoziatzeko egin nahi badituzu.



Mikel Mujika (eskubitik hirugarrena) laszko Pariseko maratoian Beasaingo beste korrikalari batzuekin.

Mikel Mujika, Bealakeko kidea

“Korrika egiten duten 40 bat lagun elkartzea da gure asmoa”

“Aspalditik gabilta 8 bat korrikalari elkarrekin. Herrian jende asko ikus daiteke korrika; bakoitza bere kabuz aritzen da. Horregatik pentsatu genuen proposa izango litzatekeela lasterkari elkarte bat sortzea, afizio hori medio, korrikaren inguruko iniziatibak batera antolatzeko eta bultzatzeko; baita entrenamenduak elkarrekin egiteko ere. Beste pertsona batek ere nahi dizkiegu, guztira 40 kide inguru izatea nahiko genuke. Beasainen korrika egiten duten pertsona asko daude eta horrek inguruko herrietatik datozeniei atentzioa deitzen die. Nire kasuan, bizitza osoa daramat korrika egiten. 18 maratoitan hartu dut parte, Rotterdam, Berlin, Londres, Paris edota Bartzelonakoetan, esaterako. Egia esan, niretzat adikizio moduko bat da, behar dudun zerbait da; nire burua korrika egin ezinik aurkituz gero umore txarrez jarriko nitzateke”.

Beasainen gero eta jende gehiagok egiten du kirolen bat edo beste. Asko dira kalera korrikal-ditxo bat egitera ateratzen diren herritarrak. Azken hilabeteetan hartutako kiloak galtzeko, laneko tentsioak alde batera uzteko, arazoez ahazteko... arrazoi bat edo beste medio, korrika egitea gero eta jende gehiagok du gustuko. Hasi berriak direnak edo urteak daramatzatenak, profil ezberdineko jendeak egiten du korrika. Zailtasun hori ikusita, hainbat lasterkari batu dira elkarte bat sortzeko xedez. Hala, Bealak (Beasaingo Lasterkariak) elkartearen helburu nagusia korrika egiten duten beasaindarrak elkartu eta guztien artean talde bat sortzea da. Azken hilabeteetan hainbat bilera egin dituzte elkartearen oinarriak zehaztu eta berau antolatzeko. Gazte, heldu, gizon zein emakume... guztiek dute talde berri honetan txoko bat.



Bealak taldeko kideak azken hilabeteetan egindako bilera batean.

Aitor Aldasoro, Bealakeko kidea

“Beasaingo elkarteek boluntarioria eta elkarlana bezalako balioak agerian jartzen dituzte”

“En Beasain hay una gran cantidad de asociaciones de todo tipo y eso es muy significativo. Es el caso de este grupo de korrika, una iniciativa llevada a cabo gracias al voluntariado y a la colaboración de muchas personas. En el municipio, siempre ha habido afición por distintos deportes, y con esta nueva asociación, la oferta se amplía”.

Bealak Beasaingo Lasterkariak

- Beala ha nacido para dar respuesta a la gran cantidad de korrikalaris del municipio.
- Muestra de la afición por este deporte es el trabajo realizado por unos cien beasaindarras en la pasada Behobia.
- Objetivos del grupo: unir a los atletas de Beasain; darse a conocer entre ellos en la medida que se pueda; participar juntos en carreras y entrenamientos; dar a conocer la asociación en el pueblo; organizar charlas, carreras, iniciativas dirigidas al público infantil, etc.
- Para el próximo 6 de marzo, Beala ha organizado una carrera de 14 km.
- Llamamiento: El jueves, 20 de enero, la asociación Beala dará amplia información sobre el grupo y detallará los pasos que van a dar en una reunión abierta que tendrá lugar en el salón de plenos del Ayuntamiento a las 20.00 h.